

ZM

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotzako herri aldizkaria • 77alea. 2022ko iraila

ESTI PRIETO

Arrakasta handiko Instagrammerra

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!

www.comerciantes-zorrotza.com





Zorrotzako jaiak 2022

irailak 23, ostirala

> 20:30 DJ OIHAN VEGA TXIKIFEST

> 23:30 DJ OIHAN VEGA

irailak 24, larunbata

> 23:00 KRESALA

irailak 25, igandea

> 19:00 A TU RITMO salsa

irailak 29, osteguna

> 20:00 DJ RULL + PATXAMAMA

irailak 30, ostirala

> 23:00 ORQUESTA VERSUS

urriak 1, larunbata

> 23:00 ORQUESTA REMIX

urriak 2, igandea

> 18:30 LA KLANDESTINA

Ennaldi guztiak Azoka plazaiko txosnaguetan izango dira

Zorrotzako
jaiak:



Onibus
• 18 • 25 • 60

Bizkaibus
• A2015 • A2016 • A2017 • A2018
• A2019 • A2020 • A2021 • A2022
• A2023 • A2024 • A2025



Renfe
• C1 • C2 (Cercanías)



Leve
• Cercanías



Metro Bilbao
• Garaiak (Geltokiak) 30 minuta oner



Ikasturte berria martxan

sarrera



Zorrotzako herri aldizkaria
77. alea. 2022ko iraila

f @ZorrotzMorrotz
t @zorrotzmorrotz
e zmorrotz@gmail.com

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratxe Pérez
Zuriñe Vila

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Iñigo Ramirez de la Piscina



Bilbao
EUSKAL
IRAKASLEEN

Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jasotzen du.

Edukiaren erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.

Uda ostean beste ikasturte berri bati ekingo diogu, gainditu gabeko hainbat ikasgai-ekin: FEVEren lurperatzea, kutsadura, Euskal Errotak, etab... Kezkatzen gaituzten gaiak dira, eta urteak eman ditugu dagoeneko konponitzeko bidean. Dena den, beste gai batzuk zehaztuta daude, eta denbora beharko bada ere, jakina, gauzatuko dira. Adibidez, Auzo-etxe berria eraikitzea.

Era berean, azken urteetan pandemiak baldintzatutako eta berriro garatu behar diren beste ekimen batzuk nabarmendu behar ditugu, hala nola Gizarte eta Hezkuntza Proiektua edota Be-launaldi Arteko Proiektua.

Bestalde, hil honetan, azkenik, gure jaiez gozatu ahal izango dugu! Esker-rrak eman behar dizkiogu

Jai Batzordeari baldintza hain okerrean egindako lanagatik. Modu atsegin eta arduratsuan parte hartzeko eta gozatzeko deia egiten dizuegu hemendik.

Halaber, Txinbotarrak auzoko konpartsa ere aipatu nahi dugu, Zorrotzako enbaxadore izateagatik Bilboko Aste Nagusian, eta urte osoan egindako lan onagatik.

Datozen denborak zailak izango dira seguru, eta, horregatik, erantzukizunez, enpatiaz eta iraunkortasunez jokatzeko unea da; beraz, guztion artean ekin behar diogu lanari. Auzo Elkartetik gogorarazten dizuegu asteartero 19:00etatik aurrera biltzen garela Auzo-etxean.

Zorrotza aurrera,
Zorrotza bizirik!



IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mail bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarritz

BiziFitness

Zure zain gaituzu
Zalbidea estratako 13an.

CROSS TRAINING
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
TXIKICROSS

Deitu 623 106 531 telefonora

FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfn. 94 441 61 46

cafe txinbo

Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak

Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



Ehun auzokide inguruk parte hartu zuen aurten berreskuratutako Aste Nagusiko Zorrotza Egunean

Aste Nagusia berreskuratu dugu aurten pandemiako bi urte luzeren ostean. Eta horrekin batera, baita Txinbotarrak konpartsak Areatzako txosnagunean antolatzen duen Zorro-

tza Eguna ere. Aste Nagusia eta konpartsa barrutik ezagutzea helburu duen ekimen honek, ehun auzokide inguru biltzea lortu zuen eguerdian antolatutako herri bazkarian.



Barinagan ur beltzak behin eta berriz trabatzen direla ohartarazi dute, Udalak irtenbiderik eman gabe

ZORROTZ MORROTZ

Auzo Elkarteak Barinaga kalean pilatzen diren ur beltzen etengabeko trabak salatu ditu bere sare sozialetako profiletan. Uda hone-tan oso ohikoak izan diren traba horiek bero handiarekin areagotu egin diren usain txar handiak sortu dituzte.

Dirudienez, Barinaga kalea eraberritu zenean, Udalak ez zuen ur beltzen saneamendua berritu, eta honek ematen du arazo hauen kausa. Anbulantzien aparkalekua inguruan ezarri zenean, aldagele-tako hustubideak hodi horretara konektatu ziren. Hodia oso txikia da, eta ez da gai hainbeste hustubideri aurre egiteko. «Hodia

oso txikia da hainbeste langileren erreleboen dutzak eta Barinaga kaleko etxebizitzaren ur beltzak jasateko», azaldu dute bertako bizi-lagunek.

Arazoa ez dela berria salatzen dute inguruko bizilagunek aspaldidanik. Ahaztuta sentitzen direla adierazi dute; izan ere, Udala arazoak daudenean hodia libratu baino ez du eginen, arazoa ezagutzen duten arren, kexa ugari baitaude erregistratuta.

Auzo-elkarteak ere adierazi du Udalari eskaera formal bat egin diola arazo hori konpon dezan, orain arte erantzunik jaso ez duena.



Zorrotzak jai-egitarau zabalarekin berreskuratuko ditu jaiak

AITOR MARIN

Zorrotzak jaiak berreskuratuko ditu azkenean. Pandemiak behartutako bi urteko etenaldiaren ondoren, TxinboMikel datorren ostiralean, irailak 23, garaiz itzuliko da zorrotzarrekin duen urteroko hitzordura. Ez du batere erraza izan Jai Batzordeak aurreko urteetako jai-jardueren mailari eustea. Izan ere, pandemiako bi urte hauetan, ahal zen neurrian kultura eta jai programa anitzari eusten saiatu baita Jai Batzordea, baina urteroko txosnako diru sarrerarik izan gabe.

Hala ere, zailtasunak-zailtasun, dantzatzeko, gozatzeko eta ondo pasatzeko aukera ugari emango ditu jaietako 9 egun hauetarako prestatutako egitarau oparoak. Adin guztientzako musika, antzerkia, jokoak, dantzaldiak, eta abarrak ez dira faltako, eta urtero bezala, guztion parte-hartzea funtsezkoa izango da jai herrikoien arrakasta bermatzeko.

Euskara sustazeko ekintzak

Era berean, jaietan euskara bultzatzeko eta sustatzeko ekimenak ere ez dira faltako aurtien. Adibidez, umeei zuzendutako pare bat ekitaldi babestu du Zorrotzako Euskal Txokoak. Irailaren 24an Xilipurdi taldearen *Pepa eta Kutxoren pailazokeriak* ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango dute txikiak arratsaldeko 17:30ean. Horretaz aparte, **Zurrezko taldearen** eskutik “egurrezko jolasak” egongo dira urriaren 2 eguerdiko 12etan, eta bertan euskaraz arituko dira parte hartzaileak.

Aipatzekoa da era berean, irailaren 25ean eguerdiko 12etan, eta Askabide Kultur Elkartek babestuta, Azoka parkean antolatutako Bertso saio handia. Bertan, Maddalen Arzallus, Unai Iturriaga eta Igor Elortza izen handiko bertsolariak taularatuko dira Azoka plazara.

MADNESS KAFETEGIA
 Elena eta Javier
 Zalbidea estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
 48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

ZORROTZA F.C.
 kirolarekin,
 auzoarekin eta
 euskararen alde!

Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75 Telefonoa: 94 442 44 68	TAILERRAK ETA ZERBITZUAK Zorrotza-Kastrexana errep. 75 Telefonoa: 94 442 17 12
--	---

TXOKO FEMINISTA

Garapen Iraunkorrerako 5. Helburua, genero berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea, lehenbailehen betetzea nahitaezkoa da.

Oraindik ere emakumeak gutxiengoa dira goi-postuetan, eta horrek politika sozial eta ekonomikoen diseinu inklusiboaren bitartez aldaketa eman dadin zailtzen du. Gainera, diskriminazio faktoreek maila indibidual zein kolektiboan emakumeen beharren asebetetze-maila eta banakako eta gizarte eskubide askoren gozamina baldintzatzen dutela ikusita, emakumeen ahaldu-

tzea eta generoen arteko berdintasuna maila publiko zein pribatuan landu behar dira.

Herrialde guztiek dute lorpenak zailtzen dituen faktore komuna: sistema patriarkalean oinarrituriko gizarteak direla. Betidaniko sistemaren erreproduzioak berak lorpenerako oztopo politikoak, kulturalak, juridikoak, sozialak eta ekonomikoak jartzen ditu. Gainera, gobernuen baliabide eta aldaketak egiteko borondate faltak oztopo gehigarriak suposatzen ditu.

Genero berdintasuna eta emakume eta nesken ahalduntzean ezin da atzerapausorik egin, populazioaren erdiekiko halabeharrezko zorra baita.

**SALAKETA ARGAZKIA****Lehortea + utzikeria= zuhaitz lehorrak**

Uda honetan zuhaitz asko lehortu dira Zorrotzan. Dagoeneko hazita dagoen zuhaitz bat, haren itzala eta abarrak galtzeak ingurumenean eragiten duen kalte konponezinaz gain, zuhaitz bakoitza ordezkatzek ere kostu ekonomiko handia dakar. Egoera hau utzikeriagatik eta mantentze faltagatik gertatu da. Ez gara ari belarra zaintzeaz lehorte garaian, zuhaitzei hiltzen ez uzteaz baizik. Eta esan bezala, Azoka parkean, Txinbo parkean eta gure auzoko beste leku batzuetan zuhaitz lehorren hainbat adibide daude.



Pintxo askotarikoak, hamburgeresak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Aroa onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao



**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO



Afariak ostiral
eta larunbatetan
Etxeo berezitasuna:
katxopoa.

Telefonoa: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAIZPI LANDA

BETISO SAIOA

Irailak 25, Igandea
Azoka Plazan. 12:00etan

Zorrotzako jaiak 2022



Unai
Iturriaga



Maddalen
Arzallus



Igor
Elortza



Antolatzaileak:



Babeslea:



Laguntzaileak:



// Hemen dabilen jende gehiena oporretan dago, eta giro hori nabaritzen da: ez dago presarik! //

IGOR GARCÍA

Bizitokia: Chayofa (Arona. Tenerife).

Noiztik: 1995eko abuztutik.

Adina: 51 urte

Labidea: Iturgina.

Duela 27 urte joan zen Igor Chayofara, Tenerifen. Nahiz eta batzuetan auzora bueltatzen den familia eta lagunak ikustera, argi dauka bere bizitza bertan duela eta ez duela bertako bizimodu lasaia aldatu nahi.



IBAI BARRIOS

Nolatan heldu zinen Tenerifera?

Urtebete Basauriko Sidenor lantegian lan egin ondoren, Tenerifera joatea oporrak pasatzera erabaki nuen. Sei hilabeteko langabezia saria neukan, eta bi hilabete La Caleta hondartzan bizitzen eman ondoren, hemen go guzkiaz eta bizimoduaz maiteminduta nengoela konturatu nintzen.

Nolakoa da zure lana?

Orain Via de Isora Uren Ptzuergoan lan egiten dut. Bost urte daramatzat lan hone-tan. Uren instalazioez, deposituez eta hiri-altzarien mantentzeaz arduratzen gara lan honetan.

Bizimodu berrira moldatzea kostatu zitzaizun?

Batere ez. Lehendabiziko egunetik oso ondo sentitzen nintzen hemen. Lehen esan bezala, eguraldiak eta batez ere hemengo bizimoduak maitemindu ninduten.

Oso ezberdina da hango bizimodua Zorrotzakoarekin alderatuta?

Bai, oso ezberdina da. Hemen bizimodu oso lasaia daukate. Nik, eguraldiari esker, kalean egiten dut eguneroko bizitza. Etxe ondoan daukat hondartza... Esan dudan bezala, hemengo bizimodua askoz lasaia goa da Zorrotzakoarekin konparatuz.

Auzora askotan bueltatzen zara?

Egia da ez naizela askotan auzora bueltatzen; familia bisitatzea batzuetan baino ez. Nire alaba hemen jaiotakoa denez, gustatzen zait Euskal Herrira bueltatzea noizean behin berak bere aitaren herria ezagutu ahal izateko. Nire lagunak ikustea ere gustatzen zait, eta saiatzen naiz adiskidetasuna elikatzen.

Zeren falta sumatzen duzu gehien?

Familia eta lagunak batez ere. Egia esanez, Zorrotzako bizimoduak asko aspertzen nau oporraldiak bertan igarotzeko... Aitortu

behar da auzoa ez dela oporrak pasatzeko lekuri ederrena; baina, esan bezala, jende asko ezagutzen dut auzoan eta beti pozten nau beraiek ikusteak.

Zer da Tenerife gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Tenerife bizitza oso erraza da. Egunero joan daiteke hondartza kirolak praktikatzen eta bizimodua oso lasaia da. Hemen dabilen jende gehiena oporretan dago, eta giro hori nabaritzen da: ez dago presarik ezertarako. Gainera, bizitza egina daukadanez leku honetan, zaila egiten zait zer edo zer txarra aipatzea.

Eta bukatzeko... Zorrotzara berriro bueltatzeko asmoa duzu?

Agian gaizki dirudi, baina... ez. Esan dudan bezala, hemen nire bizitza egina daukat dagoeneko, eta ez dut uste auzora berriro bueltatuko naizenik. Baina bisitan, askotan! Seguru baietz!



“ Bi hilabete La Caleta hondartzan eman ondoren, hemengo eguzkiaz eta bizimoduaz maiteminduta nengoela konturatu nintzen.




Lápices
LIBVRVDENDA



Untziola kalea, 8
ZORROTZA

LASTER ⚡

Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO/FAX: 94 442 46 35
LARRIALDI: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net


MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013



Vía gráfica

viagraficzorrotza@gmail.com

Disenya



Zinema-estudioak Zorrotzan

Bazenekien pandemia garaian oso ezaguna egin zen “El Hoyo” filma Zorrotzan grabatu zela? Bada bai, eta ez dugu auzoan sorturiko ekoizpen bakarra. Gezurra badirudi ere, Zorrotzako portuan kokaturiko pabiloi huts erraldoiak zinema-estudio gisa erabili izan dira azken urteotan.



TESTUA: IGOR GUTIÉRREZ | ARGAZKIAK: URKO AGIRRE

Hogei urte inguru daramatza Urko Agirrek dekorazio-teknikari (atrezzista, zinema-argotean) lanean. Auzotarra ez den arren, auzoko bertso afarira etorri zen iaz, hemen go lagun batekin batera. Entzunda genuen “El Hoyo” filma Zorrotzan grabatua izan zela, baina ez genuen ezagutzen ekoizpen horretan lan egindako inor. Erreportaje hau egitea proposatu genionean, gustura onartu zuen.

Abuztuko egun bero batean geratu gara Urkorekin. Zorrotzako portura abiatu gara eta hesia itxita aurkitu dugu. 2019az geroztik portuko lursailak udalarenak diren arren, nonbait eremu pribatua ematen dute. Hesiaz bestaldera egin dugu eta Zorrotzako muturreranzko norabidea hartu, kaialdea zeharkatuz. Urrunean, pabiloi erraldoien silueta marrazten da. Century-Fox estudioak dirudite, Urkoren hitzetan.

Pabiloi barnera sartu garenean, zaila egin zaigu zinema-estudiorik egon den aztarnaren bat topatzea. Eskerrak Urko ondoan dudala dekorazio-tailerra non zegoen erakusteko, ahaztutako materialen arrastoak identifikatzeko...

Zorrotzan grabaturiko film eta telesailak

“El Hoyo” (2019) izan zen auzoan grabaturiko lehenengo filma, Basquefilms ekoiztetxearena. Pabiloiaren txoko batean kokatu zuten

dekoratua, hiru solairuko zurezko egitura eta gasoliozko karga-jasogailu batean zetzana. “Ekoizpen nahiko merke batekin sona handiko film bat lortu genuen, batez ere Netflix-ek erosi zuenetik”, dio Urkok.

Geroago, Mikel Rueda zuzendariaren “*El doble más quince*” (2020) etorri zen, zeinetan Maribel Verdú eta German Alcarazu aktore zorrotzara agertzen diren. Gero, “*Descarrilados*” (2021) komedia, Arturo Valls eta Ernesto Sevilla aktoreekin, besteak beste. Horien ondotik, Netflix-eko “*Intimidad*” (2022) telesaila, Itziar Ituño protagonista duena eta Zorrotzako portuan eszena batean agertzen dena. Eta, bukatzeko, “*Una vida no tan simple*” (2022) filma, Felix Viscarrete zuzendari nafarrarena, aurtan estreinatuko ei dena.

Eta orain, zer?

Pabiloiak alde batera utzi eta ondoan dagoen txaletera hurbildu gara, antzina Talleres de Zorrotzako nagusiaren etxebizitza zena. Hantxe bulegoak, aldagelak, makillajea eta abar egoten zirela azaldu digu Urkok. Ate-leihoak segurtasun-sistemez itxita aurkitu ditugu. “Badirudi Bilboko Udalak bestelako asmoak dituela orube hauetarako”, dio atsekabez.

Urte hauetan zehar bertan lan egiten utzi dieten arren, ez dirudi segidarik izango duenik. Zorrotzan Euskal Herriko zinema-estudiorik handienak egon zitezkeela uste du Urkok, K2000 (Galdakao) eta Zinealdea (Oihartzun) estudioak baino handiagoak. Ezin ukatu kokaleku bikaina izango luketela eta auzoari bizitasuna emango lioketela.



Goian, ekoizpen bateko dekoratu bat. Beheko argazkian, beste ekoizpen bateko lan taldea Zorrotzako portuan.



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

ESTI PRIETO

Arrakasta handiko instagrammerra

// Leku eta une egokian nengoen instagrammerra izatea nire ogibidea bihurtzeko //

Esti Prieto (@__esti__) duela hamar urte hasi zen argazkiak Instagramen eskegitzen hotel bateko harreragile-lanetan zereginik ez zuen uneak aprobetxatuz. Denbora gutxian jarraitzaile asko lortu zituen eta Instagram bere lan bakarra bihurtu da. Egunero ispilu aurrean egindako argazkiak igotzen ditu bere profilerara, hainbat markak oparitzen dioten arroparen publizitatea eginez. Mugikorra eskuan bizi da, Instagrameko euskal influencer ezagunena bihurtu duten ia 400 mila jarraitzaileentzat edukia posteatzuz. Calzados Omegan, bere amak berrogei urtez kudeatu zuen dendan, gure galderei erantzun die.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MARÍN



Instagramen 400 mila jarraitzaile inguru dituzu. Sare sozial honetan egiten duzun jarduera zure ogibidea da. Beraz, instagrammerra izatetik bizi ahal da, ezta?

Bai, hala da. Duela urte batzuk ezetz esango nukeen, baina harrigarria bada ere, baliteke. 2016az geroztik langile autonomoa naiz, eta ordutik, honetan baino ez dihardut.

Nola azalduko zenioke zure lana zertan datzan ez dakien norbaiti?

Hainbat marka eta dendetarako publizitatea egiten dut Instagrameko nire kontuan. Sare sozial hau jende askorengana iristen den erakusleihu handia da, eta beren produktua erakusteagatik ordaintzen didaten denda eta marka horientzat publizitatea beste hedabide batzuetan baino merkeago egiteko bide bat da hau.

Zertan aritzen zinen lehen? Nola konturatu zinen honetan bakarrik jardun zenezakeela?

Nik turismoa ikasi nuen eta hotel bateko harrean egiten nuen lan Instagram erabiltzen hasi nintzenean. Han gaueko edo asteburuetako txandetan ordu asko egoten ziren libre, ia zereginik gabe. Neska batzuk egunero zeramatzaten arrokekin etxeko ispilutik argazkiak igotzen ari zirela ikusi nuen, eta gauza bera egiten hasi nintzen. Denborarekin, enkarguak iristen hasi zitzaizkidan, eta heldu zen une bat non ia ez nuen aisialdirik. Arratsaldeko txanda banuen, goiz osoa pasatzen nuen ispilu aurrean argazkiak ateratzen... Orduan, bi bideetako bat aukeratu behar izan nuen. Instagram aukeratu nuen, baina beldur handiz. Urtebete inguru behar izan nuen jauzia egiteko...

Zure amak berrogei urtez kudeatu zuen Omega galerietako oinetako eta arropa denda batean egiten ari gara elkarrizketa hau. Uste duzu dendari baten alaba izateak eragina izan duela egungo zure lanbidean? Zure moda-zaletasuna hortik etor daiteke?

Ba ez. Amaren negozioa ez zait inoiz batere interesatu. Txikitan, eskola ostean etxeko lanak egitera sartzen nintzen dendara egunero, baina bukatu bezain pronto, kalera ateratzen nintzen nire lagunekin jolastera. Egia esan, horrek ez du inolako eraginik izan gaur egungo nire jarduerarekin.

“ Nire Instagram profiletik publizitatea egiteko kontaktatu ninduen lehen marka eraztun-marka bat izan zen. Flipatuta geratu nintzen. Ni? Zergatik ni?

Arrakasta handia izan zenuen kontua zabaldu eta handik gutxira. Zergatik uste duzu horrela gertatu zela?

Une egokian hasi nintzela uste dut. Leku eta une egokian nengoen. Orain instagrammer gisa hasi nahi duen pertsona batek ez luke lortuko nik gaur egun dudan jarraitzaile kopurura hain azkar iristea. Garai hartan jende gutxiagok egiten genuen hau, Instagramek hobeto funtzionatzen zuen, eta azkarrago hazteko aukera zegoen.

Posible duzu jarraitzaileen iruzkin eta galdera guztiei erantzutea?

Saiatzen naiz, baina, ezinezkoa izaten da. Beraz, arreta handiagoa jartzen dut modu pribatuan nirekin harremanetan jartzen den jendearen zalantzak erantzuten eta argitzen. Gainera, uste dut jarraitzaileek askoz gehiago eskertzen dutela horrela aritzea.

Zenbat marka edo enpresarekin egiten duzu lan gaur egun? Gogoratzen duzu produktu bat edo jantzi bat erakusteko eskatu zizuten lehen aldia?

Ez dakit zehazki. Beharbada, hilabeteen 15 markarekin lan egin dezaket, hainbat argitalpen eskatzen dizkidatenak. Baldintza askoren mende dago, eta hil guztiak ez dira berdinak. Eta bai, gogoan dut eraztun marka bat izan zela kontaktatu ninduen lehena. Flipatu nuen. Ni? Zergatik ni? Kar-kar.

Egunean zenbat ordu ematen dituzu mugikorra eskuan?

Batzuetan mugikorrak nire besoaren luzapena dirudi, kar-kar. Badakit egin daitekeela, baina inoiz ez diot begiratu mugikorra erabiltzen ematen dudan ordu kopuruari. Sustoa hartuko nuke, bai. Hobe ez begiratzea, gero.



“Zorionekoa naizela uste dut. Gustatzen ez zitzaidan lan batetik nator, eta gaur egun gustatzen zaidan eta niretzat denbora ematen didan zerbaitetan lan egiten dut. Baina lan guztiek bezala, alde txarra ere badu, nahiz eta hori, jakina, ez dudan nire profilean erakusten.

Lanbide honek atsedeen-egunak ahalbidetzen al ditu? Inoiz deskonexioa egin duzu mugikorra egun batzuetan itzaliz?

Inola ere ez. Ez dago deskonektatu ahal duzun egun bakar bat. Batzuetan gertatu izan zait Eivissan egotea hondartzetan estaldurarik gabe, eta ordu asko pasatzen baditut, urduri jartzen naiz. Azkenean, langile autonomia naiz, eta ez da soilik Instagramen sartzea edo ez sartzea; storieak edo postak igo ahal izatea. Izan ere, garrantzitsua izan litekeen eta une horretan konektatuta dagoen kolaborazioen baterako deitzea edo idaztea izan liteke. Azkenean nire lana da, eta garrantzitsua da.

Eta egun txarrik badago? Gaixorik bazaude edo postatzeko gogorik ez baduzu?

Noski badaudela. Baina prebisore izaten eta lana aurreratzen ikasi dut. Adibidez, gaur igo ditudan argazkiak duela bi egun eginak nituen.

Pertsonaia publikoa zarela esan dezakegu. Digitalki, gutxienez, asko dakigu egiten duzunaz, nora zoazen... Pribatutasun falta sumatzen duzu? Nola bereizten dituzu bizitza pribatua eta zure postak?

Egia esan, *post* asko, edo 15 edo 20 *stori* egunean igo arren, nire bizitzako minutu gutxi batzuk besterik ez dira. Nik oso gutxi kontatzen dut nire bizitza pribatuaz.

Instagramen nire bizitza pribatuari buruz zerbait esaten badut, nire bizitza pertsonalari eragiten dion kolaborazioen bat onartu dudalako da. Baina, oro har, nire bizitza pribatuari buruz oso gutxi jakin da, eta kontu handia dut horrela izan dadin.

Emozionalki, zure bizitza aldatu da?

Ezetx esango nuke. Nik uste dut betiko bera naizela, nahiz eta egon daiteke kontrakoa pentsatuko duen norbait.

Egongo da “instagrammer” izatea ez dela lan bat pentsatuko duenik. Zer esango zenioke horri?

Honetarako, beste edozein lanbidetako beste lanordur edo gehiago egin behar direla. Zorionekotzat jotzen dut neure burua gustuko dudan eta niretzat denbora ematen didan zerbaitetan lan egiten dudalako. Askoz gehiago, gustuko ez nuen lan batetik natorrela kontuan hartzen badugu. Lan guztiek bezala, alde ona eta txarra ditu: dena ez da gozamena, ezta gutxiago ere. Baina, jakina, ona ez den zatia ez dut nire Instagraman erakusten.

Eta zer esango zenieke zu bezala honetan aritzea amesten duten guztiei?

Lehenik eta behin, ikas dezatela eta etorkizun bat osa dezatela. Ni orain oso pozik nago egiten dudanarekin, baina beldur naiz

“ Ez dut janzteko estilo zehatzik, baina argi daukat zer ez nukeen jantziko ”

Zer gustatzen zaizu gehien zure lanetik? Eta gutxien?

Eman didan eta lehen ez neukan bizi-kalitatea. Niretzako denbora gehiago eman dit, bidaiatu ahal izateko, adibidez. Eta gutxien gustatzen zaidana da jendaurrean neure burua gehiegi erakustea dakarrela.

Gogoratzen duzu argitaratu zenuen zure lehen argazkia?

Noiz izan zen hori?

Nire katuaren edo etxean egoteko zapatila pare baten argazkia izan zen. Zalantzan nago. Nolanahi ere, argazki zentzugabea. 2012an izan zen. Hoge *like* inguru izan zituela esango nuke...

Nola definituko zenuke zure janzkera?

Ez dut estilo zehatzik, baina argi daukat zer ez nukeen jantziko.

Zure armairuan edo maletan inoiz falta ez den jantzia?

Amerikana bat.

Eta zure poltsan inoiz falta ez den zerbait?

Mugikorra.

Gure irakurleei moda inguruko gomendiorik?

Ez daukat sekretu askorik...

Nahi dutena janzteko esango nieke, inolako loturarik gabe.

hau egunen batean amaituko ote den. Ez dut lanbide hau erabaki beharreko zerbait bezala ikusten hoge *urteko* neska batentzat... Nahiago nuke posible balitz eta luze iraungo balu, baina zalantza asko ditut.

Sare sozialak bezalako mundu aldakor batean, egungo zure lanak iraungitze-data izan dezakeela uste duzu?

Bai, jakina. Ni jada ez naiz lehen bezain gaztea... Hoge *urte* gutxiago dituen jendea iristen da, eta ziur aski, askoz hobeto egiten du. Instagram bera ere ez dabil lehen bezain ondo...

Hori jakinda, ba al duzu etorkizunerako beste aukerarik aurreikusita? Instagramez gain, zure jarraitzaileentzat komunikazio-kanal berriak zabaltzea pentsatu duzu?

Ez dut gehiegi pentsatu horretan. Argi daukat ez dudala hotelera itzuli nahi... Instagram baztertuko luketen kanal berriak iristen badira, gaur egungo gazteek baino zailagoa izango nuke kanal berrietara egokitzea. Adibidez, Tik Tok kontu bat ireki nuen konfinamenduan, baina murrizketak amaitu zirenean, ez nuen gehiago erabili. Ez dakit... online denda bat irekitzen saiatuko nintzateke, adibidez.

Regalos Omega
oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estrala 10

AUPA ATHLETIC



ESKAINTZA
PROGRESIBOETAN

ARMAZOIA +
KRISTALAK GOI-GAMAKoak

265€

Sustapena indarrean + 4,00 eserako eta
~2,00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18

ibarraetaluxury
OPTICA ★



AGENDA

Irailak 23 - Urriak 2

ZORROTZAKO JAIK 2022

Egitarau osoa Jai Batzordeko sare sozialetako profiletan

Irailak 24, larunbata

17:30 Azoka parkean.

Umeentzako antzerkia:

XILIPURDI: "Pepa eta Kutxo pailazokeriak"

Irailak 25, igandea

12:00 Azoka parkean.

BERTSO SAIOA:

UNAI ITURRIAGA, MADDALEN ARZALLUS eta UNAI ELORTZA

Urriak 2, igandea

17:30 Azoka parkean.

Umeentzako jolasak:

ZUREZKO TALDEAK: "Egurrezko jolasak"

Irailak 23, ostirala

22:00 Gaztetxean.

Kontzertua: ELIZABELTZ + ZURKOR

Sarrera: 8 / 10 euro

Irailak 24, larunbata

22:00 Gaztetxean.

Kontzertua:

DISTORSION + THE BIRRA'S TERROR

Sarrera: 10 / 12 euro

Irailak 30, ostirala

22:00 Gaztetxean.

Kontzertua: THE CAPACES + SOTS

Sarrera: 10 / 12 euro

Urriak 1, larunbata

22:00 Gaztetxean.

Kontzertua: CHIKI LORA +

EL SONIDO DE LA CIGARRA

Sarrera: 10 / 12 euro

Urriak 20, osteguna

22:00 Gaztetxean.

Antzerkia: ZARRA - Work in Progress

Sarrera: 10 / 12 euro

Azaroak 4, ostirala

20:00 Gaztetxean.

Kontzertua: LONCHA VELASCO + RADIOCRIMEN + FREE CITY

Sarrera: 10 / 12 euro

Azaroak 5, larunbata

20:00 Gaztetxean.

Kontzertua: POTATO.

Sarrera: 10 / 12 euro



Bar Gloria

Nerea Ibarzabal Salegi

Susa. 2022. 192 orrialde.



Egunaren zurrumbiloa noiz apalduko daude Ana, Rakel eta Migel, patxaran gozotan hirurei eusten dien sarea ehuntzen segitzeko. Idi buru bat dute zelatan —gorputz gaixo baten itzala ilunpean—, eta distantzia gutxira dute Paradise, desira ukatuen dantza-leku, gela erreserbatu eta moke-tazko hormekin; eta baita hiria ere, lagunarte berri, arrotz denaren aire urduri eta modernitatearen lokalizazioekin.

Mundu bat kabitzen da Gloria tabernako azuleju gorri eta gainazal koipetsuen artean, eta denboraren ate ezberdinetatik sartuko da irakurlea bertara kontakizun honetan. Iragan hurbil baten hitzezko filmatze bat dakar Nerea Ibarzabal Salegiren estreinako nobelak.



SAIA GOIAT: "Miazkatu"

(autoedizioa) 2022



Bere momentuan Nutri-kuko taldearen estreinako lan-naz hitz egin genuen espazio honetan. Rock indartsua, pasarte melodikoak eta metal ikutuak ziren nagusi. Bi urte eta erdi geroago "Miazkatu" bigarren erreferentzia aurkeztera datoz, aurrekoarekin alderatuz soinu organikoagoa duena. Taldearen barnean jazo diren aldaketek ere zerikusia izan dute azken emaitzan. Euren herrian bertan dagoen AME estudioetan grabatu eta nahastu dituzte lan berri honetan aurkituko dituzten 8 kantak. Prozesu honen arduraduna Axular Arizmendi izan da, euskal eszenan zeresan handiko taldeekin lan egindakoa.

Diskaren aurrerapen gisa "Lubakian" singlea argitaratu zuten, lelo itsaskorreko kanta, eta lanaren edukia ondo definitzen duena. Ordu erdiko iraupenean egurra banatu eta pasarte lasaigoak nahastu ditu laukoteak, intentsitatea galtzen ez delarik. Diseinuari dagokionez, azpimarratzekoa da Cosmic Tentacles gasteiztarrak egindako azal deigarria. Artista honen gainontzeko lanak ikusteko gomendioa egiten dizuegu, benetan harriarriak. Taldera bueltatuz, diskoa argitaratu zenetik gelditu gabe dabilta euren zuzeneko indartsua eskainiz. Ikusteko aukera edukiz gero birritan ez pentsatu!



PINTXOTAN

Penka beteak

Zailtasun maila: Erraza.

Prezioa: 1,20 euro.

Osagaiak: Penkak, york urdaiazpikoa, gazta, olio, gatza, arrautza eta irina.

Lehenik eta behin, penkak ondo garbitu behar ditugu, eta hari guztiak kendu.

Kazolan sartu, eta egosi egin behar dira bigundu arte. Bigundutakoan, xukatu eta lehortu pixka bat. Jarraian, York urdaiazpiko eta gaztaz beteko ditugu.

Bukatzeko, arrautza-irinetan pasatu eta olio oso beroarekin frijitu egin!



ASKABIDE TABERNA

Ordutegia:

Astelehenetan itxita

Asteartetik - ostegunera:

12:00etatik - 15:00ak arte eta

18:00etatik - 22:00ak arte

Ostiral eta Larunbatetan:

12:00etatik - 15:00ak arte

eta 18:00etatik - 24:00ak arte

Igandeetan:

12:00etatik - 15:00ak arte

Frai Juan Kalea, 20

48013 Zorrotza - Bilbo



ehbildu

**egiteko
beste
modu bat**



ASKABIDE
kultur elkartea
Zorrotza



Frai Juan 20 • askabidezorrotza@gmail.com



Flex lantegia

Antza denez, 1943 urtean eraiki
zan auzoko lantegi handie.

*Lantegia gaur egun. Eskuineko argazkian,
Flex lantegia duela urte batzuk.*



MANU COBO

FLEX lehengo aldiz Bilbo zaharreko “Maia-
tzak 2” kalean, lonja txiki batean hasi ebien,
1943 urtean, antza denez, auzoko lantegi
handie egin arte.

1945-47 tartean eraiki zan lantegie auzoan,
auzokide baten batek esakeran, “Lantegie
erakitzen egoenien, tutu handi batetik jeis-
ten ginan Zorrotza Kastrexana errepidetik
Zorrotzgoiti estartara eta neu 1941 urtean
jaio nintzan, beraz halakon urteetan izan
beharko zan....”

1956 urtean NUMANCIA izena hartu eban,
eta hirurogeiko hamarkadean FALUNORSA
(FABicas LUCia del NORte S.A) izenagaz lotu
zan.

Lantegiaren teilatuan ure egoan, garaiko
teilatu lauak egozan “modan” eta porlana

ez sikituteko egiten zala (edo hori entzun
dot neuk beti...).

Garai baten arrainak bota ebiezan teilatuko
uretara,neure gogorapenetan, gorriek eta
ibaien egozan antzekoak..., kaioen azea be-
tetzeko (egunero etorten ziran arrantzan).

Flex koltxoia eta somierrak egiten eta sal-
tzen ebiezan berton, eta somierrak egiteko
eukazan muellekaz tiragomak egiten gen-
duzan, egurrezkoekaz konparatuz, askoz
indartxuagoak eta erabilgarriagoak.

Bimila urtean eta 2002 tartean, langile guz-
tiek bota ebiezan, beharretan jarraitzeko
baldintzekaz, Salamankara joan edo langa-
bezire. Auzoan ez ez zan ezer gelditu, bil-
tegi eta salmenta bat beste marka bategaz
(NOCTALIA) salbu. Langile kopuru oso gitxi
mantenduz.



Hamen garaiko albiste bat. espainako beste lantegi batena:

Flex lantegiaren kokapena argazki zahar pare batean

Albiste txarrekin batera eufemismoak etorri ohi dira. Ebakinei doikuntza deitzen dautsie. Kale-ratze masiboei enplegu-erregulazioko espedienteak esaten jake. Langabeei, langabeei. Fabrika bat ixtean, deslokalizazioa.

RAEk bere hiztegiaren hogeita hirugarren edizioan terminoa sartzea aurreikusten dau, gaur egun prestatzen ari dana. Hitza Espainian 90eko hamarkadako krisian erabiltzen hasi zan, 1994ko martxoan Gillette mapatik kendu ebienean -horixe da hitzak esan nahi dauena. Orduan, lantegiak itxi egiten ziren eta enpresek Ekialdeko Europako, Afrika beltzeko edo Asiako herrialderen batera eramaten ebien ekoizpena.

Alcala de Guadairako Flexen koltxoi fabrikak mailetak egiten dabezala eta produkzio lerroetako musikagaz beste nonbaitera doala iragarri dautsie langileei. Oraingoan, deslokalizazioa ez da kilometro askokoa. Gillette iparramerikarrak fabrika batzuk ebazan Errusian, Polonian eta Turkian, eta hara eramán eban Alcalarako lantegiaren ekoizpena. Flex espainiarrak mendebaldera kilometro batzuk besterik ez du egiten, Portugalera.



Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com

Jai-Alai
kafetegia

Abato estrata, 12
94 490 12 59

Auzo laguna adinekoentzat

Pandemiako bi urteko etenaldia gorabehera, Zorrotzak bizirik dirau, eta elkartasun-izaera galdu ez duela erakusten duten ekimenak sortzen ari dira etengabe. Izan ere, aurtun auzoko adinekoen arazoekin sentsibilizatutako pertsona-talde bat sortu da, hain zuzen bereziki kalteberak diren eta kopuruz handitzen doazen bizilagunak laguntzeko asmotan. Auzo Elkarteak eta Erretiratuen Elkarteak kide batzuek eta boluntario gisa aurkeztu diren beste pertsona batzuek osatzen dute taldea.

Talde honek gogotsu ekin nahi dio lanari eta bere asmo nagusia da ideiak plazaratu eta praktikara eramatea, Zorrotza adinekoentzako auzo atseginagoa izan dadin. Zer esan nahi du horrek?

Bada, adinekoek sentitzea badaukatela zer esanik auzoko bizitzan eta beren beharrak eta kezak adierazteko bitartekoak erraztea. Horrez gain, beste helburuetako bat da modu osasungarriagoan, segurua-goan eta jasangarriagoan bizi daitezen laguntzea. Besteak beste, bilatu nahi da kalea topaleku gisa lehenestea, adinekoak beste belaunaldi batzuekin harremanetan jartzeko



CARLOS RODRÍGUEZ

“**Adinekoen arazoekin sentsibilizatutako talde berri bat sortu da, eta honen asmo nagusia da Zorrotza adinekoentzako auzo atseginagoa izan dadin.**

espazio berriak sortzea eta bakardade-egoerei aurre egitea.

Zorionez, Zorrotzako elkarre batzuek aspalditik ari dira antzeko ekimenak lantzen eta garatzen. Lehenik eta behin, Jubilatuen Elkarretea azpimarratu behar da hainbat urtetako jardueren gatik. Bestalde, Zorrotzgoitiko Adinekoen Egoitzako arduradunak ere proiektu interesgarriak abiatzen ari dira auzoan. Esate baterako, ohartzekoa da 2017an auzoan belaunaldien arteko harremanak pizteko espazio berri bat sortzeko ideia plazaratu zutela, adinekoen eta haurren arteko erlazioan arreta jarritz. Proiektu horrek hasieratik izan ditu Auzo Elkartea eta Gure

Lurra bezalako taldeen laguntza eta inplikazioa, baina oraindik ez da gauzatu.

Goian aipatu dudan talde sortu berriari dagokionez, koordinazioa auzotik kanpo dagoen arren, Zorrotzako jendearen parte hartzea eskatu dute. Labur esanda, Bilbo mailan persona nagusiei zuzendutako proiektu bat abiatu nahi dute eta Zorrotzan pentsatu dute ekintza zehatzak garatzeko hiriko lehen auzo pilotu modura.

Lehen ekintza zehatzak berehala izango dira, auzoko jaietan. Izan ere, aurtengo egitarauaren barruan, bereziki 60 urtetik gorakoentzako jarduerak erakargarriak eskainiko dira. Besteak beste, mahai-jokoak (xakea, damak, partxisa), aire zabaleko beste joko batzuek (igela eta petanka), dantza solidarioak, aire zabaleko gimnasia, auzoko abesbatzen emanaldia eta beste-lako ekintzak izango dira.

Boluntarioen beharra arintzeko, pertsona gehiago batu beharko lirateke taldera, baldintza bakarra 60 urte baino gehiago izatea delarik. Beraz, irakurle, dei bat luzatzen dizugu denbora apur bat eta laguntza emateko gogoia baduzu, gurekin harremanetan jar zaitezen helbide honen bidez: bilbaoamigablemayores@bilbao.eus



Aste batez turista

Azken urteotan aldrebestuta harrapatzen nau ikasturte hasierak. Dena hastear dagoenean, uda osteko barean jende oro bere eginbeharretara makurtzen denean, ni beti zerbait bukatzeaz, zer edo zer hasi ezinik egon ohi naiz. Aurten ere antzera izan da, baina arrazoi gustagarriengatik oraingoan, Italian egon bainaiz irail hasiera honetan, bidaian. Ederra izan da, oasis bat zinez. Napolin egun batzuk, Pompeia eta Herculano antzinako hiri erromatarrak bisitatu, Paestum greziarreko tenplu ikusgarriak miretsi. Eguneroko bizitzaren zurrunbilotik atera. Azken finean, interes kulturaletatik haratago, denoi erakargarri zaigu bazter berriak ezagutzearen plazera, ezta? Are, turismo masiboaren kontrakook, gentrifikazioa bezalako fenomenoak gau eta egun ahotan ditugunok, geure osteratxoak egiten ditugu, ahal baldin bada, jakina. Egiten ez duenak onartuko du posible izanez gero ez liokeela ezetzik esango. Turistatuko lukeela. Izan ere, lagunok, ez gaitezen engaina, ez gaitezen bidaiariaren eta turistaren arteko banaketa antzuan eror. Gaur egun gauza berbera dira bata eta bestea, ez dagoelako modurik bidaiatzeko



ASIER URKIZA

“ **Turistak gorroto ditugunon patu krudela turista bihurtzea beste erremediorik ez dugula ... Izan ere, lagunok, ez gaitezen engaina, ez gaitezen bidaiariaren eta turistaren arteko banaketa antzuan eror. Gaur egun gauza berbera dira bata eta bestea, ez dagoelako modurik bidaiatzeko sistema kapitalistak ezarritako markoaren barruan ez bada.**

sistema kapitalistak ezarritako markoaren barruan ez bada.

Turistak gorroto ditugunon patu krudela horixe baita, turista bihurtzea beste erremediorik ez dugula. Eta hortxe aurkituko dugu geure burua, Pompeia den aire libreko museoaan barrena, turista ingeles edadetuek mosaikoak nola

ukitzen dituzten ikusiz, etxe bakoitzaren barruko jende pilaketetan, gida-turistikoaren azalpen azkar eta ganorabakoei adi, aurrean duen merkantz ejem artelan horren gaine-ko daturik galdu egin nahi ez duenaren gisan. Napoli bezalako hiri batean gehiago nabarmentzen dira horrelakoak, turista izaera ageriago geratzen delarik. Italia hegoaldeko gabezien irudia da hiria, urteetako tratu txar, mespretxu eta bidegabekeriaren emaitza. Hizkuntzan ageri dira alde handiak. Futbolearen ere islatzen da ezin hobeto iparraldearen eta hegoaldearen arteko gatazka, Turingo Juventus taldearen kontrako pintadetan zein Maradonari eskainitako hamaika aldarretan. Horiak eta gehiagoren artean dago turista, Estatuaren laguntzarik bako ekonomia baten motore bihurturik, Camorraren itzala oraindik bizirik dagoen herrian bisitatu.

Beraz, nola errurik egotzi Italia hegoaldeko herri xeheari azpijoko arin eta engainu txikiekin turista limurtzen saiatzeagatik? Iparraldearen larderia, faxismoaren gorrotoa, mafiosoaren beldurra eta estatuen absentsia pairatu dutenei ez diet nik ezer leporatuko beren janari goxo eta txoko ederrak dastatzera doan turista zuri mendebalderri diruak ateratzen saiatzeagatik. Eta bai, beren klase berekotzat har dezakezu zure burua, baina turista gisa zaude hemen, laguntxo.



Marisa

Jaiak hasten direnean, nik herrira alde egiten dut, ez baititut jendetza eta zarata batere gustuko



Mónica

Kuadrillarekin beti bazkarietan eta janari lehiaketetan hartzen dut parte. Gainera, umeentzako ekintzetan ere parte hartuko dugu.

 IRATZE PÉREZ

Zorrotzako jaiak.

Zer egingo duzu?
Zer espero duzu?



Ramón

Betidanik arte martzialetako erakustaldietan hartu dut parte. Aurten, nahiz eta erretiraturik nagoen, bertan egongo naiz, gure klubeko umeekin batera.



Idurre

Kuadrillarekin, umeekin eta gurasoekin ekintzetan parte hartuko dut. Hala nola, bazkariak, jolasak eta putxera lehiaketa...



Jon

Bi urte luze egon gara jairik gabe... Beraz, aurten lagunekin ondo pasatzea baino ez dut espero! Edozein gauza eginda

ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

RISKO

Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86

 **MESÓN LUNA**

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaki-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

EUSKARAREKIN IRABAZI EGINGO DUZU



2022-2023



Matrikula zaitez euskaltegian!



Bilbao



iKasi
Mi Kasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



EUSKAL LEKUEK
Pinadia ebaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75
✉ sletecampas@gmail.com



EUSKAL LEKUEK
Ikastalde ebaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net



EUSKAL LEKUEK
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 428 01 36
☎ 94 428 01 37
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.jeszorrotzabhi.hezkuntza.net

LA MEJOR COMPAÑÍA PARA APRENDER

EUSKARA

IKASTEKO BIDE LAGUN ONENA



Zorrotza AEK euskaltegia 2022-2023 IKASTURTEA

MATRIKULA ZABALIK • EMAN IZENA

Zalbidea 7, behea | **94 441 49 20** | zorrotza@aek.eus

DIRULAGUNTZAK / BECAS

EUSKO JAURLARITZA:

maila egiaztatuz gero,
Gobierno Vasco, acreditando un nivel

BILBOKO UDALA

Maila eta asistentzia egiaztatuz behar da.
Acreditar nivel y asistencia



Aurrez aurreko eskolak
Clases presenciales



Autoikaskuntza
Autoaprendizaje



Normalizazio-plana
Planes de normalización



Mintzapraktika



Online



Itzulpenak-Zuzenketak
Traducciones-Correcciones



Barnetegiak



izul aldizkaria

• HAZIK herrikoetako euskaltegiak
Euskaltegi herrikoetako gela 1000
• Auzolana ofizialak prestatzeko ikasturte
Curso de preparación de exámenes oficiales
Lokalki aldaia laguntza **HADE**

www.aek.eus
673 200 100 - 944 444 600

